

Hamar abesbatza lehiatuko dira Antiguako sariketan

*Ahots berdin, ahots nahasi eta haur
taldeak izango dira Zumarragan*

Erredakzioa/ Donostia

Hego Euskal Herriko hamar abesbatzak hartuko dute parte gaur zortzi Zumarragan abiatuko den Antiguako Abesbatza Lehiaketan. Aurten hirugarren ekitaldia izango da, eta ahots nahasien sailean irabazle irteten denak Espainiako sariketa nagusian parte hartu ahal izango du.

AZKEN bi urteetan legez, Zumarragako (Gipuzkoa) Antiguako ermitan abesbatza lehiaketa egingo da. Lehiaketa hiru ataletan banatuko da. Alde batetik, haur abesbatzak ariko dira; beste batetik, ahots berdineko abesbatzak, eta, azkenik, ahots nahasiko taldeak lehiatuko dira.

Lehen bi modalitateetako taldeak datorren asteburuan kantatuko dute, hau da, martxoaren 6an eta 7an. Ahots nahasietako abesbatzen lehiaketa, berriz, hurrengo asteburuan egingo da, hilak 13 eta 14. Atal honetan gailentzen den abesbatzak Espainiako Abesbatzen Lehiaketan parte hartu ahal izango du. Aurtengo irabazleak datorren urtean Murtzian egingo den ekitaldian parte hartuko du. Iaz irabazle gertatu zen Santa Cecilia abesbatzari Zaragozan kantatzea egokituko zaio aurten.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik hiruna talde

Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik hiruna talde eta Arabatik bakarra izango dira Zumarragan. Gipuzkoatik, Azpeitiko Antxieta Abesbatza, Villabonako Eresargi Txiki Abesbatza eta Irungo Nayade Abesbatza ariko dira; Bizkaitik, Santurtziko lagun Zaharrrak Ahots Zuriak, Ondarroako Unanue Ganbera Korala eta Gernikako Andra Mari Korala; Nafarroatik, Hiriberriko Olite Abesbatza, Etxarri-Aranazko Etxarri-Aranatz Abesbatza eta Lodosako Erriberako Nekazal Orfeoia, eta Arabatik, berriz, Amurrioko Aresketa Abesbatza.

Haur abesbatzen artean irabazle gertatzen denak 125.000 pezetako saria jasoko du (5.000 libera inguru), garaikurraz gainera. Ahots berdineko atalean 150.000 pezeta eta garaikurra emango

dute, eta ahots nahasien alorrean 200.000 pezeta eta garaikurra.

Lehiaketaren antolatzaile Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa da, eta Zumarragako Udalaren laguntza izan du, aurreko urteetan legez. Sariketa iragarriko duen afixa Jose Mari Aleman marrazkilarik ezagunak egin du.

Zumarragako parrokiatik Antiguako ermitara igotzeko Udalak autobusak jarriko ditu doan.



EDURNE KOCH

Ezkontza Alberdanian. Alberdania argitaletxeko arduradun Jorge Jimenez ezkondu zen atzo, eta idi pareak tiratutako gurdian egin zuen Irungo udaletxetik jatetxerainoko bidea, emaztearekin batera. Jimenezek berak ezer ez zekiela, bikotea epaitegitik irten zenean, Joxerra eta Juan Garzia anaiak, Anjel Lertxundi, Inazio Mujika eta Andoni Egaña karlistaz jantzita agertu zitzaizkien. Egañak bi bertso bota zizkien ezkonberriei, eta ondoren Irungo plazan gurdia igoarazi zuten bikotea. Jatetxerainoko bidea gurdian egin zuten, garai batean egin ohi zen modura. Ezkonberrien atzetik segizioan joan ziren Alberdania argitaletxeko idazle eta kideak.